ZIZURKILGO UDALA

# COVID 19 BOLONDRESEN PROTOKOLOA

(**aviso:** podéis consultar la versión en castellano en la parte de abajo)

## SARRERA

Bizi dugun ALARMA EGOERA honetan, ezinbestekoa da COVID 19a ez hedatzea eta horretarako ETXEAN GERATZEA eskatzen zaigu behin eta berriro adituen aldetik.

Adituek, 70 urtetik gorako pertsonak jotzen dituzte arrisku gehien izan dezaketenak eta hori kontutan hartuta, Zizurkilgo Udalak ohar bidez eta telefono dei pertsonalizatuak eginez, laguntza eskaini die.

Laguntza ez da 70 urtetik gorakoei mugatzen, haurren zaintza eta bestelako behar bereziak dituztenei ere zabaltzen da.

Herritar asko izan zarete laguntza eskainiz deitu duzuenok eta osatu den bolondres zerrenda luzea eta oparoa da.

Ondorengo PROTOKOLO honekin, beharrezko laguntza emateko garaian jarraitu beharreko neurriak zehazten ditu, bai Udalari dagokionak eta baita ere bolondresari dagokionak.

## PROTOKOLOAK

### EROSKETARI DAGOKION PROTOKOLOA

UDALARI DAGOZKIONAK:

- Beharrak kudeatuko ditu eta bolondresen zerrenda erabiliko du beharren arabera deitzeko.
- Beharra duenarekin harremanetan jarri eta ze bolondres joango den ziurtatuko du.
- Erosketa egiteko beharra bada: eros zerrenda eginaraziko dio eta guztiaren balioaren dirua bolondresari emateko eskatuko zaio.
- Erosketak egiteko garaian (Farmazia barne), herriko merkatariengana bideratzeko ahalegina egingo du.
- Bolondres bakoitzari momentuan emango zaio, kalean ibili ahal izateko baimen orria. (atxikiturik zirriborroa)
- Bolondres bakoitzari momentuan emango zaizkio bere segurtasuna eta osasuna bermatzeko behar diren gauzak: Eskularruak, maskarak, …
- Kasuan dagokionaren erabakia
- ____

BOLONDRESARI DAGOZKIONAK:

- Udalak ematen dion ziurtagiriarekin (zirriborroa atxikiturik) ibili beharko du. Kasu bakoitzerako bat.
- Beharra duenarengana iristean adeitasunez jokatuko du. Egoera honetan ezinbestekoa da gertutasun, elkartasun eta maitakorrak izatea.
- Konfidentzialtasuna mantentzea ezinbestekoa da.
- Segurtasun neurriak zorrotz beteko ditu. Distantzia (1,5 metro) mantenduko du, Eskularruak jantzita izango ditu une oro eta maskara ere erabiliko du. Beste neurririk hartu behar badu, Udalak adieraziko dio.
- Erosketak edo botikak erostera joan behar badu, behardunak zerrenda eta dirua sobre batean utziko dizkio atean bere izenarekin eta erosketen tiketa eta sobratutako dirua, erosketa zerrendarekin batera itzuliko dio behardunari.
- Kasuan Udalarekin adostutako erabakia

**<u>ZAINTZARI DAGOKION PROTOKOLOA</u>**

UMEEN ZAINTZA:

Udalaren betebeharrak:

- Udalak zaindu beharreko umeen adin tarteak aztertuko ditu eta, ahal den neurrian, adin tarte berdintsuko umeak dauzkaten familiak bilatuko dira bolondresen zerrendan.
- Gehienez **4 ume** heldu batekin elkartu ahal izango dira.
- Bolondresak zaindu behar diren umeak bere etxera eramateko aukera izango du.
- Udalak finkatuko ditu umeak jaso eta bueltatzeko ordutegia eta modua (nork jaso eta eramango dituen zehaztuko da).
- Umeak zaintzeko beste familiarik topatu ezin den kasuetarako, bolondres zerrendatik zaintzailea aukeratuko da, gertutasun eta ezagutza irizpideak kontutan izanik. Kasu honetan, bolondresa umeen etxera joango da eta bertan zainduko ditu umeak.
- Kasuan dagokionaren erabakia
- ______

Bolondresaren betebeharrak:

- Bolondresak umeak bereak izango balira bezala zaintzeko konpromisoa hartzen du eta bereak eta zainduko dituenak batera izango ditu.
- Bolondresak Udalak finkatutako ordutegi eta arauak beteko ditu umeen zaintzari dagokienez.
- Bolondresak zorrotz beteko du finkaturiko ordutegia.
- Bolondresak umeen gorabeherataz hitz egingo du umeen gurasoekin, hauek bueltatzen dituenean.
- Kasuan Udalarekin adostutako erabakia

HELDUEN ZAINTZA:

Udalaren betebeharrak:

- Udalak gertutasun eta ezagutza irizpideak erabiliko ditu bolondres zaintzailea aukeratzeko garaian.
- Udalak helduaren zaintza lanak identifikatu eta bolondresari jakinaraziko dizkio.
- Udalak zehaztuko ditu zaintza ordutegiak.
- Udalak finkatuko ditu, kasuan kasu, bolondresak zaintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren babes neurriak.
- Kasuan dagokionaren erabakia
- ______

Bolondresaren betebeharrak:

- Udalak finkatutako ordutegia eta lanak errespetatuko ditu.
- Udalak zehaztutako babes neurriak ZORROZKI beteko ditu.
- Bolondresak konfidentzialtasuna mantenduko du.
- Bolondresak, egoera kontutan izanik, zaintza ahalik eta modu goxoenean egingo du.
- Bolondresak adineko pertsonaren familiartekoei bere egoeraren berri emateko konpromisoa hartzen du.
- Kasuan Udalarekin adostutako erabakia

Zizurkilen, 2020ko martxoaren 24ean

IKER URRUZOLA AIZPURA

ZIZURKILGO UDALEKO ALKATEA

ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO UDALA

Nik, Iker Urruzola Alzpurua jaunak, Zizurkilgo Udaleko alkate-udalburuak, agiri honen bidez honako hau

**ZIURTATZEN DUT**

.........................................................................., .................... nortasun-agiri zenbakiduna, Zizurkilgo herritarra ........................................................... helbidean bizi dena eta ZIZURKILGO UDALAK Alarma egoera honetan eratu duen BOLONDRES SAREKO kidea, ........................................................................................................................ herritarrari laguntzeko, erosketak egiteko baimena du 20__ko ____________aren ___an, _________tatik _________tara bitartean.

Aipatutako epealdi horretan, segurtasun neurriak betetzeko Udalak ........................................................................................................................ eman dizkio.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau sinatzen dut.

---

D. Iker Urruzola Alzpurua, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zizurkil, mediante el presente documento

**CERTIFICO**

.............................................................................., con DNI ..................., vecin@ de Zizurkil con domicilio en ............................................................... y miembro de BOLONDRES SAREA constituida por el AYUNTAMIENTO de ZIZURKIL en esta situación de Alarma, está autorizado a realizar las compras a ......................................................................................................................,durante el día ___ de ___________ del 20__ desde las _______ hasta las __________.

Durante el citado periodo, el Ayuntamiento le ha facilitado ............................................................................................. para el cumplimiento de las medidas de seguridad.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, firmo la presente certificación.

ALKATEA

ZIZURKILGO UDALA
T. Hernandorena,6- 20159 Zizurkil. T.943691012-F. 943693200
Ernio bidea 9-A behea- 20159 Zizurkil. T. 943691012
zizurkilgoudala@zizurkil. eus / www.zizurkil.eus

Nahi izanez gero azpiko bilagailua internetan sartuz dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke
La autenticidad de este documento puede ser contrastada en internet mediante el siguiente localizador
https://munigex.net/r/0/28/AAAAAVHYNKELp

Teodoro Hernandorena, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkilgoudala@zizurkil.eus
Elbarrena Auzoan: Ernio Bidea, 9 behea (Pasus Plaza) – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12
www.zizurkil.eus

# PROTOCOLO PARA EL VOLUNTARIADO DEL COVID 19

## INTRODUCCIÓN

En esta SITUACIÓN DE ALARMA que estamos viviendo, es imprescindible que no se propague el COVID 19. Para ello, los expertos nos recomiendan una y otra vez QUE NOS QUEDEMOS EN CASA.

Los expertos consideran a las personas mayores de 70 años como las más vulnerables, y, teniendo en cuenta ese dato, el Ayuntamiento de Zizurkil ha ofrecido ayuda a esas personas, mediante una nota informativa y realizando llamadas telefónicas personalizadas.

La ayuda no está limitada a personas mayores de 70 años, también está dirigida al cuidado de menores y a personas que tengan necesidades especiales.

Muchas personas habéis llamado para ofreceros como voluntarios, creando una lista amplia y numerosa.

Mediante este PROTOCOLO, queremos establecer las medidas a tener en cuenta a la hora de prestar ayuda, tanto para el Ayuntamiento, como para el voluntariado.

## PROTOCOLOS

### PROTOCOLO PARA LAS COMPRAS

PARA EL AYUNTAMIENTO:

- Va a gestionar las necesidades y utilizará la lista de voluntarios para atender las necesidades.
- Se va a poner en contacto con las personas necesitadas, y les va a confirmar qué voluntarios les atenderán.
- Si se necesita realizar la compra: le pedirá que haga una lista de los productos que necesite, y que abone el importe al voluntario.
- Al realizar las compras (incluidas las de la farmacia), se intentará que se realicen en los comercios del pueblo.
- A cada voluntario se le dará en el momento una hoja de autorización para poder andar en la calle. (se adjunta un borrador)
- A cada voluntario se le dará en el momento los materiales necesarios para cuidar su seguridad y su salud: guantes, máscaras…
- La resolución correspondiente en cada caso
- ____

PARA EL VOLUNTARIADO:

- Deberá llevar consigo el certificado que le facilite el Ayuntamiento (se adjunta un borrador). Necesitará un certificado para cada caso.
- Actuará respetuosamente con las personas necesitadas. En estas situaciones es necesario actuar afablemente, con solidaridad y amabilidad.
- Es necesario mantener la confidencialidad.
- Deberá cumplir rigurosamente las medidas de seguridad. Mantendrá la distancia de seguridad (1,5 metros), llevará siempre puestos los guantes y utilizará la máscara. El Ayuntamiento le comunicará si debe adoptar cualquier otra medida.
- Si debe realizar compras o a comprar medicamentos, la persona necesitada le dejará la lista y el dinero dentro de un sobre, en la puerta, con su nombre. El voluntario le devolverá el ticket de compra y las vueltas, junto con la lista de la compra.
- La resolución acordada con el Ayuntamiento en cada caso.

**PROTOCOLO PARA EL CUIDADO**

CUIDADO DE MENORES:

Obligaciones del Ayuntamiento:

- El Ayuntamiento analizará las franjas de edad de los menores a cuidar, y, en la medida de lo posible, se buscarán en la lista de voluntarios familias que tengan menores de edades parecidas.
- Se podrán juntar, como máximo, **4 menores** por cada adulto.
- El voluntariado podrá llevar a su casa a los menores que deba cuidar.
- El Ayuntamiento establecerá el horario y modo de recogida y de devolución de los menores (se especificará quién los recogerá y quien los devolverá).
- En los casos en los que no se pueda encontrar familias para el cuidado de menores, se elegirá un cuidador de la lista de voluntarios, teniendo en cuenta criterios de proximidad y conocimiento. En ese caso, la persona voluntaria acudirá al hogar de los menores y allí los cuidará.
- La resolución correspondiente en cada caso.
- _______

Obligaciones de las personas voluntarias:

- El voluntariado se compromete a cuidar a los menores como si fueran suyos, y tendrá a su cargo a sus menores y a los que deba cuidar.
- El voluntariado cumplirá los horarios y las normas fijadas por el Ayuntamiento en cuanto al cuidado de menores.
- El voluntariado cumplirá rigurosamente el horario fijado.

- Cuando el voluntariado devuelva a los menores, hablará con sus progenitores sobre los pormenores que hayan surgido.
  La resolución acordada con el Ayuntamiento en cada caso.

CUIDADO DE MAYORES:

Obligaciones del Ayuntamiento:

- El Ayuntamiento utilizará criterios de proximidad y conocimiento a la hora de elegir un voluntario cuidador o cuidadora.
- El Ayuntamiento identificará los trabajos de cuidado de la persona mayor, y se los comunicará al voluntariado.
- El Ayuntamiento especificará los horarios de cuidado.
- El Ayuntamiento definirá en cada caso las medidas de protección necesarias para llevar a cabo el cuidado.
- La resolución correspondiente en cada caso
- _______

Obligaciones del voluntariado:

- Respetará el horario y los trabajos fijados por el Ayuntamiento.
- Cumplirá RIGUROSAMENTE las medidas de protección definidas por el Ayuntamiento.
- El voluntariado mantendrá la confidencialidad.
- Teniendo en cuenta la situación, el voluntariado realizará los cuidados de la manera más afable posible.
- El voluntariado se compromete a informar a los familiares de la situación de las personas mayores.
- La resolución acordada con el Ayuntamiento en cada caso.

En Zizurkil, a 24 de marzo de 2020

IKER URRUZOLA AIZPURA

ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL

ZIZURKILGO UDALA

Nik, Iker Urruzola Aizpurua jaunak, Zizurkilgo Udaleko alkate-udalburuak, agiri honen bidez honako hau

**ZIURTATZEN DUT**

………………………………………………………………, ………………… nortasun-agiri zenbakiduna, Zizurkilgo herritarra ……………………………………………… helbidean bizi dena eta ZIZURKILGO UDALAK Alarma egoera honetan eratu duen BOLONDRES SAREKO kidea, ……………………………………………………………………………………… herritarrari laguntzeko, erosketak egiteko baimena du 20__ko ___________aren ___an, ________tatik _________tara bitartean.

Aipatutako epealdi horretan, segurtasun neurriak betetzeko Udalak ……………………………………………………………………………………………………… eman dizkio.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau sinatzen dut.

---

D. Iker Urruzola Aizpurua, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zizurkil, mediante el presente documento

**CERTIFICO**

……………………………………………………………, con DNI ………………., vecin@ de Zizurkil con domicilio en ………………………………………………………… y miembro de BOLONDRES SAREA constituida por el AYUNTAMIENTO de ZIZURKIL en esta situación de Alarma, está autorizado a realizar las compras a ………………………………………………………………………………………,durante el día ___ de __________ del 20__ desde las _______ hasta las __________.

Durante el citado periodo, el Ayuntamiento le ha facilitado ……………………………………………………………………………… para el cumplimiento de las medidas de seguridad.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, firmo la presente certificación.

ALKATEA



Nahi izanez gero azpiko bilagailua interneten sartuz dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke
La autenticidad de este documento puede ser contrastada en internet mediante el siguiente localizador
https://munigex.net/r/0/28/AAAAAVHYN.KELp